

**LUIS ÁLAVA SAUTU OMENTZEKO EKITALDIA
HOMENAJE EN RECUERDO DE LUIS ÁLAVA SAUTU**

2018-05-05 Vitoria-Gasteiz 05-05-2018

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Eusko Legebiltzar buru andrea eta zurekin batera dauden herri agintari bai erakunde guztietako, agintari eta ordezkariak, alderdi politikoetako ordezkariak baita Sabino Arana Fundazioaren eta beste Fundazio batzuetako arduradunak eta ordezkariak, Alava Sarearen familia kide eta lagunok, guztiok, jaun andreok egun on.

Oroimena eta aitormena uztartzen ditugu gaurko ekitaldian. Gaur 75 urte betetzen dira Luis Alava Sautu erahil zutela.

Hilketa bidegabe hura oroitzen dugu eta Luis Alava Sautuk zuzendutako Sareak egindako lana aitortu. Luis Alava eta berarekin aritu ziren guztiak, emakumeak gehienak, konpromiso arriskutsua onartu zuten eta lan isila egin zuten. Beraiei esker pertsona askok bizirik jarraitu zuten.

Konpromisoa, arriskua, lana, eskuzabaltasuna. Balio hauek eredugarriak dira gaur bezalako egun batean.

Alava Sareak indarkeriari aurre egin zion indarkeriarik erabili gabe. Gerra garaian eta gerra ostean, momentu zailenetan. Beraien lehia trebea, adimentsua eta bizkorra izan zen. Eredu hau nabarmendu nahi dugu gaur.

Hoy aunamos memoria y reconocimiento a Luis Alava Sautu –de quien cuyos familiares tuvieron a bien entregarme lazos de las coronas que acompañaron el féretro del lehendakari Agirre y también la hoja de voz que están depositadas en Ajuria Enea- y a una Red ejemplar de personas ejemplares.

Luis Alava Sautu y la red de mujeres invisibles dieron un ejemplo de solidaridad en momentos difíciles; ejemplo de compromiso valiente, inteligente y eficaz. El compromiso de enfrentarse a la violencia sin violencia, utilizando solo las armas de la inteligencia. Hoy su ejemplo cobra una dimensión especial porque en Euskadi tenemos la oportunidad de iniciar una nueva etapa de convivencia asentada sobre una convicción ética que ponga la dignidad y los derechos de las personas por encima de todo. Luis Alava Sautu y la red de mujeres invisibles son un modelo de referencia que nos enorgullece y alienta en esta nueva etapa.

El terrorismo ha terminado. Se cierra de forma definitiva una etapa que solo ha causado dolor innecesario y sufrimiento injusto. Con el terrorismo nadie ha ganado nada, todas y todos hemos perdido. También las heridas de la guerra del 36 duraron demasiadas décadas. Aprendamos del pasado. Lo importante, ahora, es preservar y honrar la memoria de las víctimas, fortalecer la cultura de paz y convivencia, para que la violencia no vuelva a formar parte de nuestra vida.

Esta es nuestra esperanza y determinación de cara al futuro. El ejemplo de la Red Alava y las mujeres invisibles nos da fuerza para seguir trabajando por el encuentro social y la convivencia activa.

Luis Alava Sauturen belaunaldiko gizon eta emakumeek dena eman zuten maite zuten askatasunarengatik. Gaur beraien omenez oroigarri hau jarri dugu. Egindako lana oroitzen dugu, eskainitako eredia aitortu eta beraien eredia lau haizetara zabaldu.

Agur eta ohore Luis Alava Sautu eta Sarean parte hartu zuten pertsona eredugarri guztiei.

Eskerrik asko.